



gabeko istorioak

Izenbururik

Eraiki dugun mundu desorekatu hau irauli nahian, ezagutzen ditugun bidegabekeri guztiak salatzen ditugu besteak beste. LAIAren hitzetan kontaktzen diren istoriotan, gaur egun ere luzaroan irauten duten egoerak eta bizipenak salatzen dituzte. Azken finean izenbururik ere merezi ez duten istorioak direnez, egoera guzti hauek deuseztatu nahian dabilta LAIA taldekoak, "Izenbururik gabeko istorioak" izenburupean argitaratu du LAIAk beraien lehendabiziko diskoa.

LAIAren lehendabiziko diskoaren aurrean gaude eta behar genuen aire berriarekin dator. Gaztea den taldea izanik ere, disko heldua eta esperientzia handiz egina dagoela agerian geratzen da. Melodia eta indarraren arteko oreka perfektua bilatu nahi izan dute disko honetan, eta lortu dutela esan genezake, entzutea besterik ez dago.

LAIA 2006. urtean sortu zen laukote gaztea dela esan genezakeen arren, esperientzia handiko "front-man" batek gidatzen du: Juanmi, hainbat eta hainbat formazioetan izana dena dagoeneko, ezagunen artean, "NOK" taldea.

2006.ean bi abestiko maketa bat grabatu ostean, arrera oso ona eduki zuela konturatu zen taldea eta honen ondorioz taldearekin aurrera egitea erabaki zuten, horrela hainbat zuzeneko eskainiz pasadan urtean.

baga-bigarekin kontaktuan jarri ondoren, eskuartean duzun lehendabiziko disko hau kaleratzearen txanda heldu zen, horrela baga-bigak Boluetan (Bilbo) dituen estudioetan grabatua izan da 2007.eko otsaila eta Martxo bitartean, Kike Mora teknikari-produktorearen gidaritzapean.

Diska hau grabatzerako orduan izan dituzten kolaborazioen artean aipatuko genezake, "LOR" taldeko abeslariaren (Lander) ahotsa aurkitu genezakeela "gu gara albistea" izeneko kantuan.

Orain beraien fruitua zuzenean aurkezteko txanda heldu zaio taldeari, honen ondorioz dudarik gabe, ekainaren 29an "Bilbao Live Festival" jaialdiaren barruan, "Metallica" eta "Incubus" bezalako taldeekin batera emango duten kontzertua azpimarratuz.

Juanmi: ahotsa, gitarra eta pianoa / **Igor:** gitarra / **Unax:** baxua / **Bernat:** bateria eta ahotsa



baga-biga musika ideiak
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia
tel. 618 072 076 / 026
info@baga-biga.com www.baga-biga.com